



AITA SANTUARI.¹



Agur ¡o Aita Santu aundia!
Izan zazu osasuna:
Jaunak dezala bedeinka zure
Mancha gabeko izena.
Zure gañean ibilli bedi,
Banatzen, Aingeru ona,
Diztiatuaz zure Jargoia,
Zeruetako urrina.
¡Nork lezakean zenbaten lira
Momentu bateko izan,
Bear bezela zure doai ta
Omenak kanta ditzadan!
Ezagutzen det nere ezereza
Baña nola senti dedan
Gurtzen zaituen biotz sutu bat,
Nai nuke zerchobait esan.
Gizatasunen argizuzia,

Zerutikan biraldua,
Zure jakintza ta birtuteak
Dauka pakean mundua:
Zu zera Jaunak ibar ontara
Birali duen eskua,
Jaiera charrak desegñ eta
Paratzeko sosegua.
Ore mordoak zeru azpian
Bildutzen diradenean,
Turmoi, chimista, euri aize ta
Ekaitzak sortu naiean,
Zure Itz utsak, eguzki gisa,
Lurraren zorionean,
Ditu egoki, ezker eskubi,
Banatzen istanpatean.
Bere ego beltzak baditu Martek
Odolgiró zabaldutzen,

(1) Esta composicion, leida por su autor en la funcion euskara celebrada el 26 de Diciembre último en el Teatro principal, siendo muy aplaudida, y las demás composiciones dedicadas á Su Santidad que saldrán á luz en este tomo de nuestra Revista, pertenecen al álbum euskaro dedicado al excelso Leon XIII con motivo de su Jubileo sacerdotal, por el Consistorio de Juegos florales de esta Ciudad.

Izarcho baten gisa zerade
 Dizdiz egiñaz agertzen;
 Eta, munduak amodiozko
 Agurrak dizu egiten,
 Dituzulako dierri biren
 Auziak erabakitzen.
 Aserratutzen baldin badira
 Gorroto basatiakin,
 Zure konseju eta ontasun
 Chukaeggarriarekin,
 Adiskidetu arte pakerik
 Ez da izango zurekin,
 Aen gañean isurtzen dezun
 Kopa baltsamuarekin.
 Bazter osoak menderatzeko
 Ez dezu indar bearrik:
 Ez dezu bear gaztelutara
 Igotzeko, sutunparik:
 Ez eta ere nagusitzeko
 Itsasoan, ontzidirik;
 Baizik aski da zure dotriña
 Garaiteza bakarchorik.
 Ebanjelio santuren bidez
 Isurtzen dezun Argiak,
 Zabal erazten ditu itsuak
 Arkitzen diran begiak:
 Biguntzen ditu biotz gogorrak,
 Zuzentzen gaizki aziak,
 Eta Jaunaren bildur santuan
 Paratzen gizon guziak.
 Zera errañu garbi garbia
 Izarrargi ederrena,
 Aundientsuro eta ugari
 Argi egiten dezuna:
 Zerutar pozen mandataria,
 Aitarikan oberena,
 Biotzetikan seme guziok
 Maitatutzen zaituguna.

¡Emanai eta biotz berako
 Aita! zuk poztutzen dezu
 Doakabea, malko jario
 Barrenta baldin badezu:
 Esku ongillez begi tristeak
 Zuk chukatzen dizkiotzu;
 Zuk arindutzen atsekabe ta
 Pena samiñak diogu.
 Udaberriko egunsentian
 Argia beziñ garbia,
 Gurutza beste armarik gabe
 Zabaltzen dezu Egia:
 Eta, *urrezko eztaietara*
 Or dijoa jendadia,
 Zure oñetan begirun aundiz
 Makurtutzero gerria.
 Zure aurrean ainbeste Errege
 ¿Nola beetitutzen dira?
 ¿Nola biraltzen erregalo aiñ
 Garestiak Erromara?
 ¿Zérk daramazki ordea ainbeste
 Jende zure oñetara,
 Omenajerik ziñezkoena
 Umilkiró eskeintzera?
 ¡Porfiaz doa munduaren bost
 Iskiñetatik jendea!
 ¿Al zera aundinai eta arrokeriz
 Mugaen zabaltzallea?
 Zera benturaz gudadiren bat
 Erri menderatzallea?
 Edo zerade munduko gauza
 Ig eskorraen zalea?
 Etzera ala, ez. Prestua eta
 Sentimentu utsa zerade.
 Ez du esango iñork zerala
 Gaitzik egiteko trebe.
 Konzienziko kezkek kenduaz
 Gizatasunaren alde,

Darabiltzkitzun arma santuak
 Jainkozko Itzak dirade.
 ¡O zer podore miragarria
 Zure Itz santuak duten!
 ¡Zenbaten biotz epelak diran
 Aditutzean berotzen!
 Zenbatek duten Jordaneko ur
 Garbitaria eskatzen,
 Birtutearen sarjin santuan
 Aurrera bizi ditezen!
 Zure Itzak ¡ai! iruditzen zait
 Dirala lore umillak,
 Mundu guzian garaitezgarri
 Banatutzen usai onak:
 Baña, loreak, uda ta negu
 Galaz jantziak daudenak,
 Eta Jainkozko usai gozoa
 Beti gordetzen dutenak.
 Usai ori da sartzen orobat
 Echolan non jauregian:
 Ala echerik santuenean
 Non arzulo basatian:
 Itsaso eta ur loituetan;
 Iturri chulo garbian;
 Eta gañera, zeru lurraren
 Tarteko utsun aundian.
 Zure Itz eta Gurutzarekin
 Beti betiko dituzu
 Maoma eta gezur utsezko
 Bere legeak garaitu.
 Illuntasunak, zure Goitargi
 Zuriak urratu ditu,
 Eta birtute Jainkokindarrak
 Aen artean zabaldu.
 Zu bezelako gizon aundiak
 Gizalditik gizaldira,
 Izar batzuek zeru azpian
 Bezela agertu oi dira.

Eta, askoren ustean dezu
 Mirari baten ichura,
 Era aiñ gaitzean zaituelako
 Jaunak birali mundura.
 Zure eginbide donetitsuak
 Arantza askocho daukazki:
 Beaztopadak ere bidean
 Izango dituzu ugari:
 Baña zerutik Maisu Santuak
 Lagunduko dizu beti;
 Aren errañu ditzizariak
 Egingo dizute argi.
 Beti izan ditu Eleiza Santak
 Gizakoloma portitzak:
 Beti zu zauden lekuan guztiz
 Diñaro jarri diranak:
 Baña denbora.... aiñ nekezetan
 Izandu dira bakarrak,
 Pedroren Silla santua aiñ gora
 Jaso izandu dutenak.
 Jainkoak beza luzatu zure
 Bizia urte askoko,
 Mundu naasia zorion eta
 Pakean bizituzeko.
 Erregerika almentsuenak
 Zaituzte obedituko;
 Eta izkuntza guziak zure
 Omenak goitalchatuko.
 Orregatikan, eta barkatu,
 Gure izkuntza zarrean,
 Aitor ta beste Aitalen asko
 Mintza ziran izkuntzean,
 Nai izandu det kantatu zure
 Figura aundiren gañean;
 Zure Jargoiren oñetan auspez,
 Zerbait eskeñi naiean.
 Euskal-erriko mendietatik
 ¿Zér nik eskeñi ordea,

Sentitu arren zureganako
 Betiko leialtadea?
 Amodiozko zizpiru eta

Pensamentuzko lorea,
 Biraltzen dizu, nere animak,
 Aita eziñ ta obea.

OTAEGI-KO KLAUDIO-K.

AITA SANTU LEON XIII~GARRENARI.

Aita Santu Beneragarri Jauna: Aurten gogoratuten danez, Berorren Santutasunak lenengo meza emon eban egun pozgarriaren berrogei ta amargarren urtea, euskaldunok gagoz oso pozturik.

Euskal-erria beti izan da Jaungoikoaren lege Santuaren gordetzaillea.

Aurrerantzean bere, uste dot, izangodala beti-bat gure Euskal-erria.

Jaungoikoa, Foruak eta euren gordetzaille benetakoentzat dira gure biotzeko gurariak.

Gure Jaungoikoak emon daigula grazia oneek gure biotzeko gurari maiteok biurturik ikusteko; eta onekaz batera bere bardin, Erromako Aita Santuaren Erregetasun eta eskubide osoak.

Orra, Jauna, gure gaurko erregu santuak.

Mun egiten deutsa oñetan Berorren Santutasunari

JOSÉ M.^a AMPUERO-K.

Durangon, Jesusen Biotz Santuaren egunean, 1887-garren urtean.
